

Izena:_____ Data:_____

BENJAMIN FRANKLIN

Benjamin Franklin bere anaia-arreba guztien artean gazteena zen. Zazpi urte zituela hasi zen eskolan. Oso gazte hasi zen lanean bere osabaren moldiztegiari. Lanak denbora apur bat uzten zionean, abenturazko ipuin mordoa eta historiako zein zientziarako liburuak irakurtzen zituen Benjaminek.

Urte batzuren buruan, egunkari ospetsu bat sortu zuen, "Pensilvaniako Gazeta", eta bere ideien berri ematen hasi zen bertan.

27 urte zituela, zientziarekiko interesa piztu zitzaion, batez ere elektrizitatearekin zerikusia zuten gaiekiko. Kezka berezi bat zebilkion buruan.

-Tximista deskarga elektrikoa da. Nahi dudana tokira bideratzea lortu behar dut, horrela ez baitu inolako kalterik sortuko - zioen bere golkorako.

Zenbaitek diotenez, ekaitz izugarria zegoen gau batean, metalezko upel bat jarri zuen bere etxeko teilatuaren gainean eta tximista barrura sartu zen. Beste batzuek diotenez, ordea, euritako bat ipini zuen teilatuan eta hagatxoaren burdinazko muturrez tximista erakarri zuten. Azken batzuek kontatzen dutenaren arabera kometa bat erabili zuen tximistaren elektrizitatea erakartzeko. A ze ausarta!

Nolanahi izanik ere, esperimentu horiei guztiei esker tximistorratza asmatu zuen. Oso gauza garrantzitsua lortu zuen Benjaminek, hots, jendeak ekaitzei beldurrik ez izatea, tximistek ez baitzuten aurrerantzean sute eta hondamendi gehiago sortuko.



1. Zein testu mota da hau?

Tximistorratzaren asmakuntzaren istorioa.

Benjamín Franklinen biografia laburra.

Benjamín Franklinen autobiografia.

2. Zenbat anaia-arreba zituen Benjamin Franklinek?

- Asko.
- Bakarra zen.
- Testuan ez da zehazten

3. Zer lortu nahi zuen Benjamin Franklinek?

- Tximistarik ez egotea.
- Tximista guztiak bere etxeko teilatura erakartzea.
- Tximistak bideratzea, kalterik ez sortzeko.

4. Zer da tximistorratza?

- Tximisten puntak edo orratzak.
- Tximistak erakartzen duen puntazorrotza.
- Tximistak uxatzeko orratza.

5. Zer nolako kalteak sor ditzakete tximistek?

- Sute eta hondamendiak.
- Beldurra ematen dute.
- Zarata desatsegina sortzen dute.

6. Zeri buruzkoak dira biografiak?

- Animalien azterketari buruzkoak.
- Pertsonen bizitzei buruzkoak
- Zientziei buruzkoak.